


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko ABUZTUA

Euskal AEko industri jarduera %4,5 murriztu zen 2012ko abuztuan

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko uztailarekin alderatuta %4,1 igo zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko abuztuan %4,5 murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2011ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %4,1 igo zen Euskal AEko industri produkzioa, 2012ko uztailarekin alderatuta.

1.grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2012ko abuztuko indizearen bilakaerak Ekipo-ondasunen jaitsiera (%8,2) dakar, 2011koaren aldean; Energia %6,1 jaitsi da; Bitarteko ondasunak %4,1. Kontsumo-ondasunak %2,3 igo dira guztira: Kontsumo-ondasun iraunkorrak %27,4 igo dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %1,3 jaitsi.

2012ko abuztuko hil arteko aldakuntza, 2011ko uztailaren aldean, positiboa izan da industri talde handi guztietan. Energia %2,1 igo da, Ekipo-ondasunak %2,8, Bitarteko ondasunak %4,6; Kontsumo-ondasunak %11,4. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %24,6 igo dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %7,7.

2012ko abuztuan aurreko urteko hil beraren aldean hazkundeak izandako sektore nagusien artean nabarmentzen dira: *Material eta ekipo elektrikoa*, %18,0, *Elikadura industriak, edariak eta tabakoa*, %9,5.

**1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea
Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-10,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-10,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-8,8
13 - Makineria eta tresneria	-0,4
14 - Garraio-materiala	-11,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-2,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	9,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	18,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Garraio materiala sektorean urte arteko %11,5eko jaitsiera dago; *Metalurgia eta metalezko* produktuetan %10,4koa eta *Kautxu eta plastikoetan* %10,2.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen abuztuko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban %10,1 jaitsi da, Gipuzkoan %4,3, Bizkaian %2,5. Hil arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian %6,5, Araban %2,9 eta Gipuzkoan %2,4, 2012ko uztailaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 abuztua (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2012Abu/2011Abu	M(2012Abu) / M(2011Abu)*	2012Abu/2012Uzt	2012Uzt/2012Eka
Indize orokorra				
Euskal AE	-4,5	-7,3	4,1	-3,7
Araba/Álava	-10,1	-4,6	2,9	-4,0
Bizkaia	-2,5	-9,6	6,5	-2,6
Gipuzkoa	-4,3	-6,4	2,4	-4,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	2,3	-4,8	11,4	-5,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	27,4	-8,4	24,6	4,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,3	-3,9	7,7	-8,0
Ekipo-ondasunak	-8,2	-4,9	2,8	-4,9
Bitarteko ondasunak	-4,1	-8,4	4,6	-3,8
Energia	-6,1	-12,3	2,1	0,8

(*) 2012ko urtarritetik oraingo hilerara arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elektr.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)